

# Lekeitioko gazteak eta euskara

-Bermeoko egoerarekin alderaketa-



June Lauzirika Ziarsolo

# EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Hurbilpen teorikoa
  - 2.1. Euskalkiak
  - 2.2. Mendebaldeko euskalkia
  - 2.3. Sortaldeko (Lea-Artibai) azpieuskalkia
  - 2.4. Lekeitioko euskararen egoera
  - 2.5. Hizkuntza-aldaketa eta kode-alternantzia
  - 2.6. Gazte-hizkera
3. Lanaren helburua eta metodologia
  - 3.1. Aztergaia eta abiapuntuko hipotesia
  - 3.2. Metodologia
  - 3.3. Lagina
4. Inkesten emaitzak, iritziak
  - 4.1. Herriko euskara: kalitatea eta kantitatea
  - 4.2. Gazteen hizkera
  - 4.3. Denek berdin egiten dute?
    - 4.3.1. Zaharrak, helduak eta gazteak
    - 4.3.2. Ikastetxeak
    - 4.3.3. Sexua
    - 4.3.4. Familia
  - 4.4. Batua ala euskalkia?
  - 4.5. Kultura-kontsumoa
  - 4.6. Gaztelania
5. Ahozkoaren eta lagunarteko hizkeraren azterketa
  - 5.1. Transkribatzeko irizpideak
  - 5.2. Azterketa zehatua

6. Ondorioak
  - 6.1. Lekeitio
  - 6.2. Bi herrien artekoak
  
7. Eranskinak
  - 7.1. Hitzunen fitxak
  - 7.2. Galdetegia
  
8. Bibliografia

## 1. SARRERA

Bermeo edo bertako herritarrek esaten duten bezala *Bermio* eta Lekeitio edo *Lekitto* Bizkaiko kostaldeko udalerrri euskaldun bi dira. 35 bat kilometroko tartea dago herri baten eta bestearen artean, hala ere, badago herri biak lotzen dituen zerbait: bizimodua. Itsasoari, portuari eta arrantzari hertsiki lotuta bizi izan dira beti biak ala biak, eta horixe izan da, hain zuzen, bai Bermeoko, bai Lekeitioko diru iturri nagusia. Eta euskal portu garrantzitsu bi horietako komunikazio hizkuntza ezin zitekeen euskara ez den beste bat izan. Hala, Bizkaiko kostaldearen bihotzean dauden herriok, euskararen arnagunetzat hartu ohi dira, izan ere, euskaraz trabarik gabe bizitzeko aukera dago horietan eta, belaunaldiz belaunaldiko hizkuntzaren transmisio naturala ematen da. Hala ere, datu estatistikoek euskararen egoera ona dela adierazi arren, herriotan etxeko hizkuntzaren erabilerak nabarmen egin du behera. Horren erakusgarri, EUSTATetik ateratako datu hauek, etxean euskararen erabilera jaitsi dela erakusten dutenak:

	1991	1996	2006	2011
BERMEO	9.991	9.601	8.267	7.479
LEKEITIO	5.726	5.445	4.218	4.653

(<http://eu.eustat.es/> webgunetik hartua)

Era berean, Bermeo eta Lekeitioko kaleetan zehar geroz eta euskara gutxiago entzuteaz aparte, belaunaldi gazteen hizkeretan aldaketa nabarmenak jazo dira. Bermeo eta Lekeitioko gazteek euskara erabiltzen dute, baina, noiz, zenbat, nola eta norekin? Zer bilakaera izaten ari da herriotako hizkera? Zer iritzi daukate *bermiotarrek* eta *lekittarrek* euren euskarari buruz? Eta inguruko egoera soziolinguistikoaren inguruan? Tankera horretako galderei erantzuna bilatzen ahaleginduko gara eta, azterketa egiteko, Bermeoko hamar gazteren eta Lekeitioko beste hamarren hizketa jarduna zein iritziak hartuko ditugu kontuan.

Beraz, bi herri horietako egoera soziolinguistikoaz eta gazteen artean sortzen ari den hizkera berriaz mintzo dira orriok. Azterketa honen bidez, orain arte egindako ikerketa-lanak geurera ekarri gura izan ditugu eta, modu horretan, ikusi ea euskal txoko ugaritan ematen ari diren zenbait aldaketa Bermeo eta Lekeitio ere gertatzen ari diren. Hala, teoriaren inguruko zenbait zertzelada emanda, praktikari helduko diogu. Azterketa aurrera eramateko, lan honetan tutore izan dugun Kike Amonarrizek proposatuta, lan paralelo bi egin ditugu: batetik, Jone Aboitizek Bermeoko gazte-hizkera aztertu du eta, bestetik, June Lauzirikak gazte lekeitiarren berbeta behatu du. Ondoren, bi herrien arteko alderaketa egiten ahaleginduko gara, Bizkaiko kostaldeko ahulgune eta indarguneak agerian uzteko.

Esan gabe doa, azterketa zehatzago bat egiteko ahaleginetan, hainbat lagunengana jo dugula. *Bermiotar* eta *lekittar* ugariren ahotsa dago jasota lan honetan, eta euren hizkera da azterketa egiteko adibidetzat hartu duguna. Eskerrik asko, beraz, behar honekin lagundu eta, gure galderak gogo handiz erantzun duten guztiei.

## 2. HURBILPEN TEORIKOA

### 2.1. Euskalkiak

Euskalkiak euskararen dialektoak dira, tokian tokiko hizkerak. Historian zehar hainbat sailkapen egin badira ere, hemen ez ditugu guztiak aipatuko. 2008an Koldo Zuazok (*Euskalkiak: euskararen dialektoak*, Elkar, 2008) egindakoari jarraituko diogu, eta azken sailkapen horren arabera, egun, bost euskalki ditugu. Era berean, euskalkiak azpieuskalkietan sailkatu zituen:

- **Mendebaldeko euskara**

- Sartaldekoa
- Tarteko hizkera
- Sortaldekoa

- **Erdialdeko euskara**

- Sartaldekoa
- Erdigunekoa
- Sortaldekoa

- **Euskara nafarra**

- Ipar-sartaldekoa
- Hego-sartaldekoa
- Erdigunekoa
- Sortaldekoa

- **Euskara nafar-lapurtarra**

- Sartaldekoa
- Sortaldekoa

- **Euskara zuberotarra**

Mendebaldeko euskalkiari dagokion eremua Bizkaia, Deba ibar gehiena eta Arabako Aramaio ibarra da; Bermeoko eta Lekeitioko hizkerak, beraz, mendebaldeko euskarari dagozkie.

## 2.2. Mendebaldeko euskalkia

Duela urte batzuk arte *bizkaiera* deitu izan zaio euskalki honi, baina *mendebaldeko euskara* izendapena zuzenagoa eta zehatzagoa da, izan ere, Bizkaian ez ezik, Gipuzkoako Debagoiena eta Debarrena eskualdeetan eta Arabako Aramaio eta Legutio udalerrietan ere erabiltzen da.

Zuazoren arabera, (*Euskalkiak: euskararen dialektoak*, Elkar, 2008) mendebaldekoa dugu euskararik hedatuena, eta arestian esan bezala, hiru azpieuskalki bereizten ditu: **sartaldekoa** (Uribe-Kosta, Mungialdea, Txorierri eta Nerbioi ibarra, Zeberio, Arratia eta Orozko), **tartekoa** (Busturialdea eta Zornotza) eta **sortaldekoa** (Lea-Artibai, Durangaldea, Aramaio, Debagoiena eta Debarrenako Mallabia, Ermua, Eibar eta Soraluze). Hori kontuan izanda, Bermeoko hizkera mendebaldeko tarteko euskararen barruan kokatuko dugu; Lekeitiokoa, ordea, mendebaldeko sortaldeko euskararen barruan.

Mendebaldeko euskararen bereizgarri edo ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

### Fonologia (ahoskera):

- Hitz askotan, **u** vs. *i*: *huri* / hiri, *hurun* / hirin, *ule* / ile, *urten* / erten / irten, *uger egin* / igeri egin, *uzen* / izen... Ez dakigu bi aldaeretatik zein den zaharrena.

- *-a* amaieradun hitzei *-a* artikulua eranstea: *-a + -a > -ea*: neska + *-a* > *neskea*, *-ea* horretatik, hizkeren arabera *-ia*, *-ie*, *-i* edo *-e* sortzen dira: *neskia*, *neskie*, *neski*, *neske*.

- Lau txistukariak bitara ekartzea: batetik, s eta z > **s** kontsonantean berdintzen dira; bestetik, *tz eta ts* > **tz** dira beti. Gipuzkoako iparraldeko herri askotan ere halaxe gertatzen da.
- Hitz askotan, gainerako euskalkietan e dagoenean, mendebalean **a** dago: *barri* / berri, *andra* / andre, *alkarte* / elkarte.
- Aditzetan, **g** mendebaldean: *erabagi* / erabaki, *jagi* / jaiki.
- *itz* > **tx**: (h)aritz > *aretx*, (h)aitz > *atx*, gaitz > *gatx*.
- *iz* > **x**: (h)aize > *axe*, goizean > *goxean*, eleiza > *elixa*.

### Izen morfologia:

- Soziatiboa: **-gaz"** singularrean eta **-kaz** pluralean: laguna(ga)z eta lagunakaz. Pluraleko -kaz hori sartaldean sortaldean baino gehiago entzuten da. Sortaldeko hiztun batzuek -kin bakarrik erabiltzen dute, singularrean zein pluralean.
- Destinatiboa: **-rantz(a)** sartaldean eta **-rutz"** sortaldean.
- Aditz izenak mugimenduzko aditzen osagarri direnean eta norabidea edo helburua adierazten dutenean, **-ten"** mendebal gehienean: afalten goiaz = *afaltzera goaz*, eitten noie = *egitera noa*.
- Partitiboa esapide batzuetan erabiltzen da: *kalerik kale*, *etxerik etxe*, *mendirik mendi* vs. *kalez kale*, *etxez etxe*, *mendiz mendi*.
- Sarritan, **onetan**, 'honetan' nahiz 'hauetan' adierazteko erabiltzen da, azentua gorabehera; pluralean, *oneitan* ere entzuten da. *Onék* eta *ónek*, *onégaz* eta *ónekaz*, *aretara* eta *áretara*, singularra eta plurala, hurrenez hurren.
- Izenordainak zehaztugabeak: **zeozer**, **nonor**, **nonoz** lakoak, eta horietatik eratorritako **zeozelan**, **nonogaz**, **nonondik** mendebaleko berrikuntza da. Dena den, **edozeelan**, **edonor** eta **edonoiz** ere mendebalean esaten dira.
- Izenordain indartuak: **neu**, **(h)eu**, **zeu**, **gei**, **zeuok** vs. *neroni* / *nihaur*, *herori* / *hihaur*, *zerori* / *zuhaur*...
- Gaztelaniatiko *-ción* atzizkia > **-iño**: *erlazino*, *konfesino* (erdialdeko euskaran *konfesioa*, ekialdean eta Iparraldean, *konfesioa*).



## Aditz morfologia:

-NOR-NORI-NORK

saileko adizkietan *eutsi* erroa: *deutsat* 'diot', *deust*'dit', *deusku* 'digu'...

Aldaera askorekin.

- Antzinako idatzietan \**ezan* erroa ohikoa zen, baina egungo mendebaleko euskararen *egin*-ek ordezkatu du: *daigun* 'dezagun', *leikezu* 'dezakezu', *ekarri eixu* 'ekar ezazu', e.a.

- *Izan* iragankorreko orainaldiko adizkietan (dut, dute...), -o- eta -au-: *nik dot, hik don, zuk dozu, hak dau, guk dogu, zeuok dozue, hak dabe* (<\**daue*).

- *Izan* iragankorrekoetan (nuen, zuten...), -eu- > -eb-: *nik neban, hak eban (hark), hak eben (haiek)* baina hiztun gehienek *zuk zenduan, guk genduen, zuek zenduen*.

- NOR-NORI: *jat(a), jak/n, jako, jaku, jatzu, jatzue, jake*. Hasierako *j-*, sartaldean *y-*, erdialdean *dx-* eta sortaldean [x] igurzkari belarra ahoskatzen dute (gaztelaniazko *jamón* hitzean bezalakoa).

- \*-io- aditzeko formak Mendebalean honela dira: *dinot, dinozu, dino*, e.a.

Beste euskalkietan ez bezala, NOR-NORI-NORK sailekoak gorde ditu: *zuk niri dinostazu*.

- Partizipioak gaztelaniatik mailegu berrietan:

a) -ado > -**au**: *pentsau, akabau, amenazau* eta abar. Bestela da mailegu berriak ez direnetan: *barkatu / parkatu, bukatu, bekatu / pekatu*, eta abar.

b) -ido > -**idu**: *korrejidu, sentidu, mobidu / mogidu*, eta abar.

## 2.3. Sortaldeko azpieuskalkia (Lea-Artibai)

### Hizkeraren kokagunea:

Arestian esan bezala, Lekeitioko hizkera, mendebaldeko sortaldeko euskararen barruan kokatzen da.

### 1. Mendebaleko bereizgarriak

1) -a + a > -ia/-ie.

2) Txistukarien neutralizazioa.

3) Vj + z > V(j) + x bustidura.

- 4) Artikulu hurbila gorde da.
- 5) Moduzko adberbioetan *-n* eransteko joera.
- 6) *edun*-en atzizkietan *-o-* eta *-au-* erroak orainaldian.
- 7) N-N-N saileko adizkietan erroa *eutsi*.
- 8) *-z* pluralgilea *egon*-en adizkietan.
- 9) *-ado* > *-a* partizipioetan.
- 10) Aditz izenak egiteko aukera zabala: *-etan*, *-duten*, *-ten*.
- 11) Kontzesiboetako *arren*.
- 12) NOR-NORI saileko adizkietan *j-*.
- 13) Hitzak elkartzerakoan, *l*, *n* eta *r* ondoren frikariari eutsi.
- 14) *ez* + *z* batzerakoan, frikariari eutsi.
- 15) Sozietiboko *-gaz*.
- 16) *-rik* morfema *herririk herri* gisako egituretan.
- 17) Erakusleetan erro bera singularrean eta pluralean.
- 18) Erdal *-(c)ion* > *-(z)iño*. Era berean, *-n-* dago \* *-io-* aditzaren adizkietan.
- 19) *egin* erroa.
- 20) *-z* pluralgilea nagusi.
- 21) `Erakuslea + izena´.
- 22) Lexikoa: *berba* `hitz´, *selan* `nola´, *bihar* `lan´, *ipini* `jarri´...
- 23) Aldaerak: *barriro* `berriro´, *be* `ere´, *žente*, *urten* `irten, *amen* `hemen´, *emon* `eman´, *gitxi* `gutxi´, *itxi* `utzi´...

## 2. Mendebaleko sortaldeko bereizgarriak

- 1) /e + a, e, o / > i eta /o + a, e, o / > u disimilazioak.

## 3. Lea Artibaiko bereizgarriak

- 1) Hego Euskal Herriko beste alderdi batzuetan bezala, *tt* > *tx* egiteko joera.
- 2) Sozietiboan *-kin* pluralean.
- 3) *bi* izenaren ezkerrean jartzeko joera zabaldu da.

## 4. Lekeitioko bereizgarriak:

- 1) \**j*-ren *ž* ahoskera.
- 2) NOR-NORI saileko adizkietako *ž* ahoskera.
- 3) /i + a, e, o / arteko *ž* epentesia.

## 2.4. Lekeitioko euskararen egoera

Lekeitio Bizkaiko kostaldeko udalerrri euskalduna da, eta Lea-Artibai eskualdean (Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar) dago kokatuta. Otoio eta Lumentza mendiek inguratzen dute, eta eskualdeari izenaren erdia ematen dion Lea ibaiak zeharkatzen du. Herriari nortasun berezia ematen dion Garraitz edo San Nikolas irla ere ezin aipatu gabe utzi.

Hurrengo mapak Lekeitioren kokapen zehatza erakusten digu:



EUSTATen biztanleen udal-eroldaren 2013ko datuen arabera, Lekeitio 7.373 inguru biztanle bizi dira, eta euskararen ezagutza datuen arabera, Lekeitioko biztanleen %86 euskalduna da. Esan beharra dago, Lea-Artibai Euskal Herriko eskualderik euskaldunena dela, eta Ispaster eta Markina-Xemein izan ezik, gainerako udalerrri guztiak UEMA mankomunitate euskaldunetan sartuta daude. Hau da, Lekeitio ere Udalerrri Euskaldunen mankomunitateko kidea da. 2001eko datuei erreparatuta Lekeitioko euskararen erabilera %70ekoa zen, eta horrek esan nahi du bertako herritarrek nagusiki euskaraz bizi zirela. Egun, aldiz, kontua bestelakoa da. Herritarren hizkuntza

ohiturak aldatzen joan dira eta euskararen erabilerak beherakada nabarmena izan du. Azken datuek Lekeitioko euskararen erabilera %53'2koa dela erakutsi dute. Aldaketa hori 25-55 urte bitartekoen artean eman da batez ere, eta adin tarte horretako herritarren euskararen erabilera %43ra jaitsi da, nahiz eta haurrak daudenean %75era igotzen den.

Zehatzago erreparatzen badiogu, eta Bermeoko datuekin konparatu ahal izateko, 2011ko datuei begiratuko diegu. Horien arabera, 2011ko Lekeitioko biztanleen %78-%79 da euskalduna: 5.816 euskaldunak, 773 ia euskaldunak eta 638 erdaldunak. Hala ere, euskaldun aktiboen kopurua, bestelakoa da, izan ere, azken urteotan beherakada izan du euskararen erabilpenak eta, eroldako datuek erakusten dutenez, egunetik egunera jaisten ari da. EUSTATEko datuek adierazten dutenez, 2011n –Bermeorekin bat egiteko jarri ditugu urte honetako datuak-, hauexek ziren hizkuntzen erabileraren inguruko datuak:

<b>Erabiltzen den hizkuntza:</b>	<b>Bizt.</b>
<b>EUSKARA</b>	4.653
<b>GAZTELANIA</b>	1.837
<b>BIAK</b>	787
<b>BESTEREN BAT</b>	131

(<http://eu.eustat.es> webgunetik hartua)

Hala, datu hauek zera esan nahi dute: 2011. urtean, 4.653 biztanlek euskara erabiltzen zuten etxean; 1.837k gaztelania zuten etxeko hizkuntza; 787 biztanlek bai euskaraz, bai erdaraz egiten zuten; eta 131k euskara eta gaztelera ez diren beste hizkuntza bat hitz egiten zuten etxean.

## 2.5. Hizkuntza-aldaketa eta kode-alternantzia

“Aldaketa” egungo linguistikaren oinarrizko kontzeptuetako bat da; izan ere, hizkuntzak bere-berea du etengabe aldatzea. Lengoaiak amaigabeki eraldatuz doaz, eta era guztietako aldaketak pairatu ohi dituzte: aldakuntza fonetikoak, morfologikoak, lexikoak e.a. Hizkuntzak antzaldatzen diren modu berean, hizkerek ere, belaunaldi batetik bestera, bilakaera jasaten dute ezinbestean; eta hiztun guztiok eraldatzen dugu hizkuntza nork bere egoerara egokituz, esaerak dioen legez, dabilen harriak ez du goroldiorik izaten.

Aldaketa horiek, ordea, ez dira kasualitatez gertatzen; Jean Aitchison maisuaren esanetan, faktore soziolinguistiko zein psikolinguistikoak dira hizkuntza-aldaketak gertatzearen erantzule. Hizkerek jasaten duten bilakaera hori, gainera, naturala da, eta ezin liteke saihestu. Geurera etorrita, bi dira euskararen bilakaeran eragina izan duten baldintza nagusiak:

Batetik, 60ko hamarkadan hasitako biziberritze sasoiak eta 1968an sorturiko euskara batuak eragina izan dute tokian tokiko hizkeren garapenean. Orduz geroztik, Euskal Herriko hizkuntza hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan, literaturan e.a. sartu da. Hala, euskal berba ugari erdal ordainen mesedetan galdu diren moduan, beste hitz asko jantzi eta apaindu egin dira, euskara “garbi” edo batuagoa lortze aldera.

Bestetik, euskararen ofizialtasunik ezak eta erdararen jazarpenak ere badaukate eragina. Euskal Herria bezalako herrialde elebidunetan, hizkuntza-ukipena deritzona gertatzen da, hots, bi hizkuntza (gure kasuan euskara eta gaztelania ala euskara eta frantsesa) lurralde berean elkarbizitzen ari dira. Joshua Fishman soziolinguistaren esanetan, egoera horietan ohikoa da hizkuntzak bata bestearekin nahastea, izan ere, lengoaiak ez dira isolatuak eta elkar eragiten dute. Hala, hizkuntza-ukipenaren ondorioetako bat da hitz egiteko orduan bi hizkuntza edo gehiagotako hitz zein egiturak nahastea, eta fenomeno horri *code-switching* edo **kode-alternantzia** deritzo. Halaber, Euskal Herriko hizkuntza-politikak euskarari merezi duen balioa aitortzen ez diola kontuan

izanda, are normalagoa da erdaratik edatea. Horrenbestez, belaunaldi berriek geroz eta joera handiagoa daukate gaztelaniara jotzeko. Lan honetan fenomeno horrek, kode-alternantziak, Bermeoko eta Lekeitioko gazteengan duen eragina ikusiko dugu.

Azterketa horretarako, Inma Muñoak bereiziriko kasuak hartuko ditugu aintzat:

a) Kode-alternantziak:

1. Makulu-aldaketa: Beste hizkuntza bateko makuluak sartzea hizkuntza batean egiten ari den solasaldian.
2. Perpausen arteko aldaketa: Esaldi edo perpaus bakoitza hizkuntza batean egitea.
3. Perpausen barneko aldaketa: Perpaus edo esaldi berean kode bat baino gehiago erabiltzea.

b) Maileguak: Kode-alternantziak ez bezala, maileguak beste hizkuntza bateko elementuak izan arren, xede hizkuntzaren maila guztietan egokitzen dira.

c) Kalkoak: Hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egitura okerre deritze.

## **2.6. Gazte-hizkera**

Gazte-hizkera gazteek euren artean komunikatzeko erabili ohi duten mintzaerari deritzo; erregistro horrek belaunaldi helduengandik bereizten ditu. Kike Amonarrizen esanetan, gainera, ez dago gazte hizkera bakarria, gazte hizkera asko dago, errealitate soziolinguistiko bezainbeste.

Geurera etorrira, gazte-hizkeraren fenomeno oso nabarmena da, izan ere, gurean, egoera soziolinguistiko berezia dugu: batetik, euskara gaztelania eta frantsesarekin ukipenean dago; bestetik, euskalkien eta euskara batuaren arteko aurkakotasuna daukagu. Hori dela eta, gurean bezala, hizkuntza-

ukipena dagoen kasuetan, gazte-hizkera are nabariagoa da, gazteen artean hizkuntza-ordezkapena begi-bistakoa delako.

Mintzaira hori hizkuntza arautuaren aurka sortu ohi da, erabilera informalerako. Amonarrizen (2008) arabera, hizkera transgresiboa da, erregelen kontra joan eta botere hizkuntzarengandik urruntzea duelako helburu. Horrenbestez, hizkera horrek funtzionalitatea bilatzen du; bat-batekotasuna eta adierazkortasuna dira ezaugarri nagusi. Orain arte ahozko berriketan nagusitu bada ere, teknologia berrien garapenaren ondorioz, idatzizko jardunera ere zabaldu da. Arestian aipatu bezala, munduko hizkuntza guztietan gertatzen den fenomeno denez, gazte-hizkerek bereizgarri komunak izan ohi dituzte lengoia guztietan. Amonarrizek hurrengo joerak nabarmentzen ditu, besteak beste:

- Hizkuntza egituren erabilera ezegokia
- Aldaketa sakona aditzaren paradigmaman
- Erdararen interferentzia etengabea
- Lexiko ordezkapena
- Tradiziorik gabeko euskararen erabilera ez zuzenak

Ezaugarri horiek hizkuntzaren maila guztietan aurki daitezke (lexikoan, morfologian, syntaxian, fonetikan...).

Batzuen esanetan, Euskal Herrian, gazte askok aurkakotasun-jarrerari eusteko, euskara arautua alde batera uzten dute eta erdarara jotzen dute. Hala, gaztelaniaren edo frantsesaren eta euskararen *pidgin* moduko batetik gertu legoke gazte-hizkera, *euskañola* edo *frantseuskara* deitu ohi diote askok. Kike Amonarrizen esanetan euskarazko lagunarteko gazte-hizkerak honako ezaugarri hauek ditu:

- Euskara nahasia da:
  - Adierazkortasuna lortze aldera, euskara eta erdara nahasten dira (esamoldeak, hitzak, egiturak e.a.).
  - Batua eta euskalkiak nahasten dira.
  - Herri bakoitzean forma linguistiko berriak sortu ohi dira.

- Akatsak oso modu naturalean onartzen dira hizkera kolokialetan.
- Norberarena ez den beste euskalkiak tartekatzeko joera.
- Ipar eta Hegoaldeko aldea geroz eta handiagoa da, iparraldeak frantsesetik edaten baitu eta hegoaldeak, berriz, gaztelaniatik.
- Euskalkiak adierazkortasuna lortzeko bide bezala erabiltzen dira, baina modu partzialean. Hizkera tradizionala arbuiatu egiten da sarritan.
- Euskarazko argot berriaren aztarnak anekdotikoak dira.



### **3. LANAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA**

#### **3.1. Aztergaia eta abiapuntuko hipotesia**

Busturialdea eta, batez ere Lea-Artibai, Euskal Herriko eskualde euskaldunenetarikoak izanagatik ere, Bermeo eta Lekeitio oraingo honetan ez dira salbuespen, eta hango euskarak ere bilakaera pairatu duten berbeten zakuan sartzekoak dira. Aldaketa horiek geroz eta nabarmenagoak dira; eta lan honen helburua da aldakuntza orokor horiek erakustea: kode-alternantziarik baden gazteen lagunarteko hizkeran, gaztelaniaren zein Euskara Batuaren eragina e.a. Horrez gain, azterketa osoago bat egite aldera, bermeotarrek eta lekeitiarrek euren egoera soziolinguistikoaren inguruan daukaten iritzia biltzen ahalegindu gara: zer iritzi duten euren hizkerari buruz, gaztelaniarekin duten lotura norainokoa den euren ustez e.a.

Lan hau egiteko, eremu euskaldunetan geroz eta hedatuago dagoen hipotesia hartu da abiaburutzat: gazteen artean, hizkera berria sortzen ari da, erdararen zein euskara batuaren eragin nabarmena dituen. Horrenbestez, behar honen bukaeran Busturialdean eta Lea-Artibain hipotesi hori betetzen den ala ez azalduko dugu. Era berean, bi herrien arteko alderaketa egiten ahaleginduko gara, Bizkaiko kostaldean gertatzen ari den hizkera-aldaketa erakusteko eta, gerora begira, gure lana zonalde horietako lan-plangintzetarako abiapuntu izan dadin.

#### **3.2. Metodologia**

Gazte-hizkeraren azterketa hau egiteko, Bermeoko eta Lekeitioko hiztun gazteak behatu, eta lagunarteko diskurtso naturalean talde horren diskurtsoari izaera ematen dioten ezaugarri linguistikoak aztertu dira. Hala, lau grabazio egin dira, bi Bermeon eta bi Lekeition. Hitzunen jarrera ahalik eta zintzoena izan zedin, amaiera arte ez dute jakin lanaren benetako helburua zein den. Ikerketa soziologiko bat egiteko beraien iritziak entzun nahi zirela azaldu zitzaizen,

horretaz aparte euren hizkera behatuko zela esan barik. Solasaldia aurrera eramateko, aurrez prestatutako galdera-sorta egin zaie elkarrizketatuei hainbat gairen inguruan: euskara zenbat erabiltzen duten, Euskara Batua edota euskalkiak zein kasutan erabiltzen dituzten e.a.

### **3.3. Lagina**

Ikerketa egiteko bi eztabaida taldez osaturiko lagina aztertu da herri bakoitzean. Partaide guztiak 20-25 urte bitartekoak dira, eta talde bakoitza lauzpabost lagunek osatu dute. Laginaren gainerako ezaugarriak ez dira alde aurretik finkatu (ohiko harremanetan zein hizkuntza joera duten e.a.). Horrenbestez, bi herrien artean osaturiko lau taldeetan askotariko ezaugarriak dituzten gazteak bildu dira: sexu bietakoak, eskola edo ikastola ezberdinetan ibilitakoak, familia erdaldun zein euskalduna daukatenak e.a. Helburua izan da ahalik eta talderik naturalenak sortzea, beren baitako heterogeneotasun osoa onartuz.

Lekeitioko azterketa egiteko lagina herriko bederatzi gaztek osatu dute. Horietatik bat Bilbon jaio zen arren, 18 urte daramatza Lekeition bizitzen, eta beraz, erabat integratuta dago linguistikoki, zein arlo guztietan. Adinari dagokionez, hiruk 21 urte dituzte, batek 22, beste batek 23 eta gainontzeko laurak 24. Taldea sexu bietako gazteek eratu dute, eta herriko bi ikastetxeetan ikasitakoak dira –Resurrección María de Azkuen eta Lekeitioko Eskola Publikoan-. Familien jatorriari erreparatuz gero, askotariko ezaugarriak dituzte: hiru gazteren gurasoak lekeitiarrak dira; bosten gurasoetariko bat lekeitiarra da eta bestea, aldiz, ez; eta bakar baten aita eta ama Lekeitiotik kanpo jaioak dira.

## 4. INKESTEN EMAITZAK

### 4.1. Herriko euskara: kalitatea eta kantitatea

Herriko euskararen kalitateari dagokionez, oso berezia dela iruditzen zaio bati, izan ere, ondoko herrira joan eta diferentzia nabarmena da; eta beste herri batzuetako euskararekin alderatuta oso ezaugarri bereziak dituela uste du. Bere esanetan: “kalidadien aldetik super berezija dala, ze alboko herri batera zoiaz da kriston diferentzija dao. Beste herrietako euskeriaz konparaten baozu oso rasgo berezijek daukoz”.

Beste hiztun guztiek Lekeitioko euskara polita dela azpimarratu dute. Hala ere, uste dute kalitatea galtzen doala eta gaztelerazko hitz asko sartzen dituztela. Gaztelera sartzeaz gain, Lekeitioko berba asko galdu direla ere uste dute, eta horren adibide da euren aitona-amonek erabiltzen dituzten hitzak beraiek ez erabiltzea. Hiztun guztiak datoz bat gero eta erderakada gehiago entzuten direla: “oso politxa da, baña kalidadia piskat galtzen dao ze erderakadak geruo da gehijao”, “galtzen mouan doia ze erderako hitz asko sartzen douz”. Eta horren harira, gazteek gero eta okerrago hitz egiten dutenaren susmoa dute nahiz eta euskara beste herri eta probintzia askotan baño gehiago zaintzen duten. Dena dela, lexikoan ez ezik hitzak ahoskatzeko orduan ere ezberdintasuna dagoela irizten zaio beste bati. Hau da, zaharrek *Lekitto* esaten dute, baina gazteek *Lekitxo*; *koittarua* vs *koitxada*; *aitta* vs *aitxa*; *sentiru* vs *sentidu*... “Hitz asko galdu dira lekitxarrak, gure amumak eta kriston hitzak erebiltxe´bezen da on e, zer da hori?”, “ez berbak bakarrik, pronuntziaziñoia bebai”.

Kantitateari erreparatuz gero, asko erabiltzen dela esan dute, bai gazteen, bai nagusien artean; beste herri batzuekin alderatuta euskara gehiago entzuten dela eta Lekeitio herri euskalduna kontsidera daitekeela esan dute. Hori gutxi balitz, beste batek Lekeitiok euskara maila ona duela azaldu du. Horren adibide dira: “kantidadien aldetik beste herri batzuekin konparata, askoz euskera gehijo entzuten dan herri bat da Lekitxo, herri euskaldun bat ahal da kontsidera”, “beste herri batzuekin alderatuta Lekitxok euskera mailla ona dauko”.

Dena den, egin diren ikerketen arabera, Lekeitioko hizkeraren erabilera galtzen ari omen da, eta horren aurrean badagoela zer egina begitantzen zaie hiztunetako gehienei: “gaur eun ein dizen estudio ezberdiñen arabera Lekitxoko hizkeria asko galtzen daola da horren aurrrian badaola zer ein”.

## 4.2. Gazteen hizkera

Lekeitioko gazteen euskararen inguruan egindako galderaren erantzunean, oro har, ados daude guztiak. Uste orokortua da gero eta gaztelera gehiago egiten dela. Koadrilak eta koadrilak daude, eta askok erdarara jotzeko joera handiagoa dute beste batzuk baino; ez elkarriketa guztia gaztelera, baina bai hitz eta esaldi solte batzuk, izan ere, esaldi batzuk gaztelera daudela eginda uste du batek. Horregatik oso ohikoa da euskaraz hasi eta erdaraz bukatzea. Euren hitzetan: “badaoz kuadrillak eta kuadrillak, da askok erderara jotzen dabe, ez jo de konbertsaziño guztija erderaz, baña esaldi batzuk bai daoz erderaz idatzitxa moura”, “euskeraz hasi da erderaz amaitxu”. Euskaratik gaztelera pasatze horren arrazoia kanpoko jende asko egotea izan daitekeela esan du beste hiztun batek. Udan *beraniante* asko dago, eta askok daukate gaztelera hitz egiten duen kanpoko norbait koadrilan, eta ondorioz, sarritan hasten da koadrila guztia gaztelera gehiago hitz egiten. Hala, udan gaztelania gehiago entzuten dela uste dute: “gero eta erdera gehijo etxen dala; da gero bebai ba kanpotar asko daola, *beraneante* asko datozela udan, da askok baauke kuadrillan kanpotarren bat erderaz etxen dabena berba, orduan, kuadrilla guztija hasten da beraz erderaz berbetan da udan gehijo entzuten da erderia kalietan”. Ez hori bakarrik, euskaraz edo erdaraz aritzea ohitura kontua dela iruditzen zaie. Batek azaldu du norbait ezagutzen duzunean egiten duzun lehendabiziko hitza euskara izan bada hortik aurrerako harremana euskaraz izango dela; lehenengo berba erdaraz izan baldin bada, berriz, harremana erdaraz izango dela: “zuk ezautze´ozu pertsona bat da lelelengoko hitza etxe´ozuna horreaz pertsoniaz holan engo´zu beti”, “ohitxura kontua da”. Erraztasuna eta ohitura elkarren eskutik lotu ditu beste hiztun batek, esan baitu askotan norberarena baino ez dela gaztelera hitz egitearen errua. Maiz gertatu

izan baitzaio Bilboko edo beste tokiren bateko norbaiti gazteleraz egin eta euskaraz egiteko erantzuna jasotzea.

Gaur egun Lekeitioko euskalkia ez dela ondo hitz egiten gaineratu du batek, eta erdaraz gain euskara batua ere sartu dela bertako hizketan. Horrekin batera dator Lekeition, zein beste edozein herritan euskara kutsatzen doala. Gizartean gaztelerarako joera hartu da, eta orduan, euskara bera ere erdaldundu egin da; ohitura sozial bat da, alegia: “Lekitxon da beste edozein herritxan euskeria kutsatzen doila gizartian hartun dan erderarako joeriaaitxik, da orduan geroz eta, erderaz ezpada be, euskeria erdaldundu ein dabe”.

### **4.3. Denek berdin egiten dute?**

Lekeition denek berdin hitz egiten ote duten galdetuta, denek erantzun dute ezetz; baina arrazoi ezberdinak aipatu dituzte, hala nola: adin desberdinen arteko aldea, familiako giroa edota herritik kanpo ikasten joan direnen eta irten ez direnen artekoa.

Hori horrela, ondoko puntuetan euskararen erabilera eta kalitatea baldintzatzen duten faktore nagusiak nabarmenduko ditugu:

#### **4.3.1. Zaharrak, helduak eta gazteak**

Guztien esanetan, Lekeitioko euskararen erabilerari dagokionez, desberdintasun nabarmena dago adinekoen eta heldu eta gazteen artean bai kantitatean, baita kalitatean ere. Batzuk esan dute “benetako euskara lekeitiarra” gazteen artean galduta dagoela, gazteek ez omen dakite “benetako lekeitiarra” hitz egiten: “benetako lekitxar euskeria gaztiak eztabe etxen”. Gainera, gaztelaniaren eragina betidanik sumatu bada ere, gaur egungo gazteengan areagoa dela nabarmendu dute. Lehenago garbiago hitz egiten zela uste dute, eta batez ere, lexikoari dagokionez, aldea handia dela adinekoen eta gazteen artean. Batek aitarekin egin du konparaketa, biak (bera eta aita) lekeitiarrak dira, eta euskalki bera hitz egiten dute, baina batetik bestera alde nabaria dagoela iruditzen zaio: “Bitu nire aitxa da bitu ni. Gauza batzuk eukiko´uz bardiñak, inebitabilia da, lekitxarrak gara bijok da euskalki

bardiña etxen dou berba, baña batetik bestera mundu bat dao”. Esaera asko galdu egin dira, baita itsasoari edo eguraldiari lotutako berbak ere, eta aitortu dute horrelako hitzak eta esaerak galtzea pena handia ematen diela: “adibidez aditzak eta *jonak* eta horrek, berbak, itsasoko berbak... ikusi etxen da galtzen doiala”, “*guariñua, drogosua* eta holakuak ezagunak diraz; eguraldijaz zerikusija aukenak gitxio dakiuz”.

Horren harira, behin baino gehiagotan gertatu izan zaie adineko norbaitekin hitz egin eta ulertzeko arazoak izatea. Norabide bietan gainera, hau da, gazteak zaharra ez ulertzea eta zaharrak gaztea ez ulertzea. Dena dela, jankin mina edo kuriositatea egon badagoela argi utzi dute, berbaren bat ez dakitenean galdetzeko eta jakin mina asetzeko ohitura dagoela, alegia.

Batek esan du, besteak beste, hezkuntzari egotz dakiokela galera horren zama, izan ere, Lekeition bizita ikastolan eta eskolan euskara batua lantzen dute, eta irakasle gehienak lekeitiarrak izanik iruditzen zaio herriko berbak eta aditzak gehiago landu beharko lirakeela. Horrela izan ezean euskalkiko bereizgarri asko galtzera kondenatuta baitaude.

Hori gutxi balitz, teknologia berriek izugarritzko eragina dute gazteengan eta termino berriak sartzen doaz etengabe; gazteek beti dituzte hitz berriak euren diskurtsoan gehitzeko: “gaztiok beti aukauz hitz barriak esateko”. Maiz beste hizkuntza batzuetatik hartzen dira, eta horren adibide garbia da ingelesak ere gero eta pisu handiagoa duela gazteen hizkeran.

### **4.3.2. Ikastetxeak**

Ikastetxeei dagokienez, esan beharra dago hiztunek Resurrección María de Azkue Ikastolan eta Lekeitioko Eskola Publikoan ikasi dutela. Batean zein bestean D ereduan ikasi dute, eta bietan euskara batua lantzen da. Dena dela, ikas-tokiaren arabera aldea dagoela uste dute denek. Uste orokorra da ikastolan ikasi dutenek hobeto eta gehiago hitz egiten dutela euskaraz eskolan ikasi dutenek baino. Hala ere, garbi utzi dute eskolakoek ere egiten dutela, baina ikastolan euskarari garrantzia handiagoa ematen zaiola esan dute:

“eskolan edo ikastolan ikastia differenti da”, “ikastolan gehijo lantzen dabe euskera maillia, da eskolan igual ez hainbeste. Ez nao esaten erderia gehijo lantzen danik, baña ezta lantzen ondo nire ustez”. Horren adibide euskararen aldeko ekintza ugari egiten dituzte ikastolan, esate baterako: Euskararen eguna ospatu, pastoralak eta antzerkiak egin... Abenduko Euskararen egunera begira gauza ugari antolatzen dituzte, eta nahiko denbora pasatzen dute egun hori prestatzen. “Behin betiko” kanta txikitatik erakusten zaie hurrei eta euskara sustatzeko ahalegina haurtzarotik hasten da. Bestalde, pastoral bat ere egin zuten. Lekeitioko irakasle batek idatzi zuen eta Lekeitioko berbak eta esaerak zeuden oinarrian. Eskolan, aldiz, ez dute horrelako hainbeste gauza egiten.

Eskolara kanpotar gehiago joan izan da beti; lekeitiarrak bai, baina kanpotar asko ere bai. Orduan nahita nahi ez multikulturalizatu egiten da eskola, eta horrek hizkuntza gehiagoren arteko nahasketa dakar. Horrek erdara gehiago lantzea dakar, eta hori uste dute dela euskarak ikastolan duen bezainbesteko indarra ez izatearen arrazoi nagusia.

Ikastolan ikasitakoek –oro har- euskara hobeto erabiltzen dutela adierazi duten bezala, eskolakoek gaztelaniaz hobeto hitz egiten dutela azaldu dute: “eskolakuak eta ikastolakuak ikuste´ozuz da ikastolakuak hobeto etxe´ozue berba; kalidadez da igual kantidadez bebai, baña erderaz al reves pasaten da: eskolakuak ikastolakuak baño hobeto etxen dabe berba”.

### **4.3.3. Sexua**

Gazte lekeitiarrek ez dute uste sexuak eragina duenik euskara gehiago edo gutxiago erabiltzeko orduan. Bestela esanda, neskek eta mutilek berdintsu erabiltzen dute: “alde askorik eztot iarten, eztot pentsaten”. Norberaren arabera da euskararen erabilera altuagoa edo baxuagoa izatea, eta hor norberaren inguruak edo mugitzen den giroak du zerikusia, ez sexuak: “bueno, gero segun bebai nun ibilliniku dan bebai, edo nor ezautzen daben, edo noreaz junta dan ta hori, baña askorik ez”.

#### 4.3.4. Familia

Etxean zein hizkuntzatan aritzen diren galdetuta, bi erantzun jaso ditugu: 1. euskara hutsean guztiekin; 2. gurasoetako batek euskaraz jakin ez eta harekin gazteleraz, baina neba-arreben artean eta beste gurasoarekin euskaraz. Bakar batek esan du gazteleraz baino ez duela hitz egiten etxean, gurasoek ez dakitelako eta neba-arraben arteko hizkuntza ohitura ere gazteleraz gauzatu delako.

Normalean etxean euskaraz hitz egiten dutenek esan dute batzutan berbaren bat edo beste zuzentzen dietela gurasoek, lehengo berbak esan beharrean beste batzuk esatearren. Adibidez, batek esan du aitak askotan zuzentzen diola *farua edo marrazua* esaten duenean, *farola* eta *karnadia* baita.

Beste kontu bat ere aipagarria da. Hiztunetako batek esan du bere neba Gizaburuagako eta Amorotoko jendearekin ibiltzen dela askotan, eta *kotxia* edo *etxia* esan beharrean *kotxi* eta *etxi* esaten hasi dela. Horrelakoak esaten dituenen ezin isilik geratu eta zuzendu egiten dizkiola aitortu du.

Bestalde, etxean euskaraz edo gazteleraz hitz egiten dutenen artean alderik ba ote dagoen galdetzean baietz ihardetsi dute guztiek: “bai, asko nabaritzen da norek etxen daben etxian euskeraz da norek erderaz, da soltura”. Etxean beti euskaraz egiten duenari kalean igarri egiten zaio gaztelera erabiltzerakoan gehiago kostatzen zaiola. Etxean euskaraz eta gazteleraz aritzen direnek, aldiz, soltura eta jariotasun handiagoa dute hizkuntza bietan: “etxian erderaz sekula etxen eztabenak ba gero igarri etxen da kalia, da nik, adibidez, etxian erderaz etxe´otenez amaz ba soltura aukat”, “kuadrilliaz kanpora zoizenin da, asko iartzen da zelan eskatu gauzak tabernetan da holakoxe gauzetan”, “igarten da nok etxen daben zer etxian”.

#### 4.4. Batua ala euskalkia?

Lekeitioko gazteek euskalkia erabiltzen dute euren egunerokotasunean, ahoz, zein idatziz. Hori da txikitatik ikasi eta entzun dutena, eta hori da euskalkia erabiltzeraren arrazoietako bat. Beste bat da nortasuna eta



identitatea adierazten duela. Euren ahotan, oso euskalki polita da Lekeitiokoa, eta kanpoko jendeak ere hori esaten die sarritan. Ezaugarri bereziak ditu, eta beste euskalki batzuekin alderatuta desberdina iruditzen zaie.

Euren eguneroko hizketaldian euskara batuaren eragina sumatzen duten galdetuta, erantzun biribila jaso dugu: ezezkoa: “ez, zero”. Koadrilan eta etxean ez dute batere erabiltzen, noizbait erabiltzekotan unibertsitatean erabili izan dute. Halere, unibertsitatean aurkezpenen bat euskara batuan egin behar izan dutenean lotsa sentitu dutela esan dute, eta esan beharrekoa asko pentsatu behar izan dutela, ez zaiela natural ateratzen. Euskara batua faltsutzat ezaugarritu dute, artifizialtzat. Hori bai, aurkezpenak egiterako orduan lekeitiar zarratua egitea eta erderakadak erabiltzea saihesten ahalegintzen dira, eta kasu horretan ordezkaturiko dute esan beharreko hori euskara batuarengatik, bestela ez: “presentaziñoitan da eztozu etxen euskera batua, baña ahaleginddu etxen zara ba lekitxar lekitxar en birkuan ba erderakadak saihestu da euskera batuko zeozer sartzen, baña ezoiar direktamente euskera batura”. Gainera - baten batek izan ezik-, onartu dute nahigo dutela gazteleraz hitz egin euskara batuan baino, naturalagoa egiten zaiela.

Beste herri batzuetako jendearekin harremanak egiteko edo komunikatzeko euskalkia erabiltzen dute ia beti, eta euskara batua ez dute erabiltzen hitz konkreturen bat esateko ez bada. Gauza bera gertatzen da sare-sozialei dagokienez. Guztiek esan dute normalean –salbuespenak salbuespen-euskalkian idazten dutela, bai *Whatsappen*, bai *Facebooken*, bai *Twitteren*. Oro har, ez dute bereizketarik egiten batzuen eta besteen artean, baina *Twitteren* zerbait garrantzitsua edo albisteren bat partekatu nahi baldin badute euskalki jasoagoa erabiltzen saiatzen dira ulermen maila errazteko asmoarekin.

#### **4.5. Kultura-kontsumoa**

Musika zer hizkuntzatan entzuten duten galdetuta, denetarik erantzunak aurkitu ditugu. Batzuk gehiena ingelesez entzuten dutela adierazi dute; beste batzuk, aldiz, normalean euskaraz entzuten dutela. Gainera momentuaren arabera musika mota bat edo beste entzutea gustatzen zaiola azaldu du batek,

hau da, normalean euskaraz entzuten du, baina adibidez, lanak egiten baldin badago, nahiago izaten du letra ez dakien kantaren bat entzun. Orduan, ingelesera jotzen ohi du.

Irratiari dagokionez, esan dute normalean ez dutela entzuten, baina kotxean doazenean daukaten musikarekin aspertuta egonez gero, Gaztea jartzen dutela baieztatu dute batzuk. Beste batzuk goizetan Bizkaia Irratia entzuten dute etxean gosaltzen ari diren bitartean. Eta bakarren batek adierazi du ez duela irratirik entzuten, ez baitzaio askorik gustatzen.

Telebistaren inguruan galdetuta gehienak bat datoz: normalean gazteleraz ikusten dute, izan ere, bariazio gehiago dago. Batzuk adierazi dute nahiago luketela euskaraz ikusi, baina ETB1ek programazio eskasa duela erantzun dute. Gazteentzako telesail bakarra Goenkale dela esan dute, eta gazteleraz mota askotako telesailak daudela: “es que euskeraz serijiak... esango nazu zeintzuk daozen serijiak... Goenkale da punto!”. Gazteleraz ez ezik, hiztun bik sarritan telebista ingelesez ere ikusten dutela ihardetsi dute. Hala ere, gauza baten ados daude ia guztiak: albisteak ETB1en ikusten dituzte, beraz, notiziak euskaraz ikusteko ohitura dute: “(...), adibidez: notizijak, telediarjua y poco menos euskeraz”.

Zinearen inguruan galdetuta, erantzuna aho batekoa izan da, oro har, gaztelaniaz. Euskaraz bariazio urria dagoela esan dute denek, eta itzulita dauden pelikulak ikustea ez dute gustuko. *Harry Potter*en adibidea eman du batek. Ezinezkoa iruditzen zaio pelikula hori euskaraz ikustea, baina beste batek kontrakoa ere gertatzen dela gaineratu du. Hots, *Baypass* filmaren jatorrizko hizkuntza euskara izanik, gaztelaniaz ikusten hasi eta utzi egin behar izan zuela. Beraz, nahiago dute jatorrizko hizkuntzan ikusi, moldatuta baino.

Gauza bera gertatzen zaie irakurtzeko orduan. Liburu gehienak gaztelaniaz irakurtzen dituztela aitortu dute, izan ere, aukera zabalagoa dago gazteleraz euskaraz baino: “gero liburuak ya niri personalmente gehijo gustaten jat erderaz irakurtzia”. Euskarara itzulita dauden liburuak irakurtzea ez zaie gustatzen, artifizialegiak iruditzen baitzaizkie euskarazko itzulpenak,

arrotzegiak: “euskeratuta daona eske ezi’ot awanta, ezi’ot”, “euskeraz liburu gehijenak itzulpenak diz da gehijo kostaten da irakurtzia”. Halere, nahiz eta normalean gaztelaniaz irakurtzea gehiago gustatu, euskal literatura (jatorrizko hizkuntza euskara denean) ere irakurtzen dute. Aldizkarietara eta egunkarietara dagokienez, guztiek ez dute prentsa irakurtzen, baina irakurtzen dutenek Berria eta Gara irakurtzen dute.

#### 4.6. Gaztelania

Gaztelera euren hizkeran eraginik duen edo ez galdetuta, erantzun bertsuak eman dituzte. Gaztelera inguruan dute, hori saihestezina da, errealitate soziolinguistikoa horixe da, eta ondorioz, euren hizketaldietan ere eragina du. Euskalkiko hitz asko gaztelanitik hartuta daudela aitortu dute, erderakada asko dituzte barneratuta dialektoan, eta *-ia* amaiera jarri eta euskaratu egiten dituztela esan dute, adibidez: *kotxia, bentania, borragomia...* Horregatik, lexiko mailan gaztelera eragina du, baina ez hainbeste esaldi mailan: “lexiko maillan dauko eragin handija erderiak. Adibidez, esan biharkuan *ondo beixanduten jat, ondo parexiduten jat* eta holakuak bai”, “esaldi maillan baño lexiko maillan gehijao”. Beste kontu bat da solaskidea nor duten: “segun noreaz zaozen gehijo engo’zu edo gitxiao”, “ohitxuren arabera”. Gaztelaniara gehiago pasatzeko ohitura dutenekin elkartzeko direnean, batzuk gaztelera saltoak egiteko ohitura dutela adierazi dute –hauek etxean ere gaztelera norbaitekin hitz egiten dutenak izan dira- errazagoa baita biak hizkuntza berean komunikatzea bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz aritzea baino. Etxean euskaraz hitz egiteko ohitura dutenek, berriz, azaldu dute norbaitek gaztelera hitz eginez gero eta euskaraz badakiela jakinez gero, euskaraz erantzuten dutela, ez dutela gaztelera salto egiten. Solaskidearen arabera kontua dela iruditzen zaie, lehendabiziko hitza nola egin pertsona batekin hizkuntza horretan izango dela hortik aurrerako harremana, bai ahoz, bai idatziz.

Ez hori bakarrik, gaztelaniaz mintzatzearen errua askotan euren izaten dutela esan dute, herritik kanpora irten eta gaztelera egiten baitute sarritan lehendabiziko hitza: “askotan geuk daukau kulpia erderaz etxiarren,

ohitxurialtxik. Pasa jat ein erderaz Bilboko nonoreri da esan ein: euskeraz be ulertze´otsut”.

## 5. AHOZKOAREN ETA LAGUNARTEKO HIZKERAREN AZTERKETA

### 5.1. Transkribatzeko irizpideak

Transkribatzerakoan, ortografia errespetatu da, ahal den neurrian, bederen. Izan ere, lan honen helburua gazte-hizkera aztertzea da, ez Lekeitioko ahoskera. Horrenbestez, ahalik eta transkripzio ulerterrazena ematen ahalegindu gara. Hona hemen horren gaineko zenbait ohar:

- Txistukariei dagokienez, Lekeition s eta z ez dira bereizten, eta s ahoskatzen dira biak. Gauza bera gertatzen da *tz* eta *ts* soinuekin, biak *tz-ra neutralizatzen dira*. Baina gure traskripzioan ortografia errespetatu denez, berba bakoitza dagokion letrarekin agertuko da: *zeu* (eta ez *seu*), *zabal* (eta ez *sabal*), *hutsik* (eta ez *hutzik*), *ikusi'tsut* (eta ez *ikusi'tzut*)...
- /h/ ahoskatu ez arren, beti agertuko da.
- Bustidurak adierazi dira: *dd*, *ñ*, *ll* eta *tx*-ren bidez: *ahaleginddu*, *baña*, *kuadrilla*, *Lekitxo*, *e(i)txen*...
- /j/ fonema erabili da, bai sabaiaurreko afrikatu ahostuna, [dž], traskribatzeko (*jesarri*, *juten*, *Jone*); bai igurzkari belar ahoskabea, [x] traskribatzeko (*jeneralian*). Sabaiaurreko frikari ozena, [ž], traskribatzeko ere /j/ fonema erabili da, izan ere, Lekeitioko gazteek horrela idazten baitute (*gehijao*, *handija*...).
- *-au* diptongoa adierazteko *-aw* erabili da: *handijawa* ('handiagoa').

Bestelakoak:

- Ezezkoak eta baldintzak elkartuta idatzi dira: *eztakizu*, *bazatoz*.
- 'ere', 'eta' edo antzeko partikulak bereizita agertzen dira, salbuespen bakarrarekin: *neuk*, *zeuk*, *geuk+be<neupe*, *zeupe*, *geupe*.
- Adizki perifrastikoak apostrofoarekin idatzi dira aldaketa fonetikoren bat baldin badago edo hizkiren bat galdu bada: *etxe'otsu*, *emote'otse*, *ikusi'ot*...
- Azentua ez da markatu.

## 5.2. Azterketa xehatua

Kode-alternantziari erreparatuko diogu atal honetan, eta horretarako, gaztelaniaren interferentziaren zenbait adibide ekarriko ditugu:

### O sea

- *Hitz asko galdu dira bebai lekitxarrak, **o sea**, gure amumak eta kriston hitzak erabiltze bezen.*
- *Normalian eztakitxetenian berba batek ze nahi daben esan galdetu etxe otsat, **o sea**, kuriosidadia badao baña...*
- *Egija da ikastolatik euskerien aldeko leku askotara jun gara, Euskerien Euna, Zornotzan, **o sea**, normalian enjou holako gauzak, pastoralak, **o sea**, erakutsi gaitxue zer daon.*
- *(...) adibidez pastorala lekitxarra dan maixu batek einda letria eta, **o sea**, eztakitx...*
- *Jo, esaozuna Carmenena bebai, **o sea**, hori super kuriosu da bebai.*
- *Bai, da gero bebai, **o sea** hori abenduko Euskararen Egunera begira, **o sea**, eun bat antolatzen da.*
- *“Behin betiko” kantia, eztait nik zer, umiari erakusten beti txikitxatik, **o sea** hortik aldetik nik pentsate ot ondo.*
- *Nik be pentsate ot gehijo dala berban, **o sea**, lexiko mailan.*
- *(...) **o sea** E-k esan dabena.*
- *(...) horretxetara juten naz, **o sea**, es que inebitabilia etxen jat, **o sea**, piskat etxen banau ez, baña...*
- *Adibidez G, **o sea**, G-k asko saltaten dau erderara.*
- *(...) **o sea** nik salta euskerara etxeot.*
- *Niri igual e, **o sea**, lekitxarrez igual berbaren bat...*
- *(...) gehijo euskeraz, **o sea**, Lekitxarrez, bai.*
- *(...) **o sea**, nik igual adibidez klasian e...*
- *(...) **o sea** aprobetxa auntsen daukazuela euskaldun pare bat.*
- *(...) benga, euskera ikasi bi ot, **o sea**, euskera en bi ot.*
- *(...) **osea** ya hor bebai salto handija dao nitzako.*

- Gero berak ezpotzu ulertzen, **osea**, ikusten bozu ezin dabela ba batura.

### De

- Ez erderara jo **de** konbertsaziño dana erderaz...
- Ezta e osea txarto pasa **de** igual e lotsi etxen nao, ez.

### Vale

- (...) guk euskara batua ikasi dou, **bale**, perfekto, baña...
- Zoiz e beheko Eroskira, esate´otsazu eztaik nik zer da e... "dos cincuenta", osea, **bale**, esate´otsazu eskerrik asko, agur, baña...
- (...) osea, horixe, Durangoku da, euskeraz daki perfekto, da erderaz saltaten dau, **bale**, hori bere...
- (...) neupe euskeraz bakitx e, **bale**, ondo, da ya ikuste´ozu ta...

### Super

- (...) Lekitxokua dala **super** handija, zabala da hori...
- **Super** guay dao, baña guk eztou erabiltxen.
- Jo, esaozuna Carmenena bebai, osea, hori **super** kuriosu da bebai.
- (...) hori beste ikastola batzutan eztoz pentsaten e, nose, nik **super** ondo pasa neban...
- (...) **super** kuriosu da geure artin erderaz berbetan...
- (...) gernikarrak ixateko erderara **super** arin saltaten dabela, raru da, bai...
- **Super** dialekto politxa aukaula, espeziala...
- Bai, hiru hitz dira **super** e... eztaikx.

### No se

- (...) hori beste ikastola batzutan eztoz pentsaten e, **no se**...

### No se que

- Juergan zaoz da erdi mozkortuta: "ya es que Lekitxo, **no se que**", osea...

## Bueno

- *Nik neuk askorik, **bueno**, eztot pentsaten e...*
- *(...) da hortik aurrera ba bueno, ba **bueno**, baña zuzendu eustien da bakitx holan eztala...*
- *Erderaz idaztenbot, **bueno**, sin mas, erderaz...*
- *(...) gero ahal dozu ein kriston aditz holakua bota, baña **bueno**...*
- ***Bueno**, neu hasiko naz.*
- *Eurak ezpadabe ikasten, bitxartian ba **bueno**...*
- *Anaijaz da arrebiaz igual ez horrenbeste, **bueno** igual arrebiaz...*
- *Nitzako hiru eremu dao, **bueno**, bai, hiru eremu.*
- *Es que gure kuadrillin kasuan hasten zara zozer erderaz esaten da, **bueno**, kutxilluak daukazuz lepotik.*
- *Hasten da bat zuzentzen, txarto ein dozula berba, da **bueno**, daukazu hille beterako txistia kuadrillan!*
- ***Bueno**, horren harira (...)*
- *(...) da batuaz be **bueno**...*
- *Bai, zozer bai, baña **bueno** ez horrenbeste.*
- *(...) **bueno** ba kotxian banoia da (...)*
- *Ez, baña **bueno**, nik nire kasuan (...)*

## Es que

- *(...) **es que** segun bebai bakotxa nun ibilliniku dan edo...*
- *(...) horretxetara juten naz, osea, **es que** inebitabilia etxen jat.*
- *(...) bestela **es que**...*
- *(...) baña **es que** euskera batua nik barrijo moura ikuste ´ot.*
- *(...) da **es que** nik ezin ´jot.*
- *Bua, **es que** nik pazientzi gitxi edo aukat e.*
- *Juergan zaos da erdi mozkortuta: "ya **es que** Lekitxo, nose que", osea...*
- ***Es que** euskeraz serijiak, esango nazu zeintzuk daozen serijiak.*
- *Euskeratuta daona **es que** ezi ´ot aguanta, ezi ´ot.*
- *(...) ikusi neban erderaz da **es que** ezin neban...*
- *Sin mas, **es que** etzakitx, eztakitx.*
- *Jo **es que** da galdera bat sekula eztozuna planteo, ez?*



- **Es que** nik asko zaintze ´ot ze esate ´oten.
- (...) eztait **es que** nire ama, nire ama be...
- **Es que** gure kuadrillin kasuan hasten zara zozet erderaz esaten da, bueno, kutxilluak daukazuz lepotik.
- (...) baña gero euskeraz **es que** eztatitx.
- **Es que** igual jako.
- (...) **es que** lein esan douna (...)
- **Es que** depende nun zozen.
- **Es que** ni ibilli nazen jentiaekin be es que niri ulertu ein nabe.
- **Es que** medikunera juten zarinian zelan jungo zara ba?
- **Es que** euskeraz, da euskal taldia...
- **Es que** gero ganera betiku da.
- Kotxian noinian ejat gustaten radiorik entzutia, **es que** ejat gustaten radiorik entzutia.

### Segun

- (...) es que **segun** bebai bakotxa nun ibilliniku dan edo...
- Lein komenta ´otsutena, **segun** noreaz zozen.
- Ni **segun** e, **segun** pertsonia.
- Bai, **segun** nungu zarin, nor zarin, da horretxek etxe ´otsu.
- **Segun** noreri bialtze ´otsaten.
- **Segun** berak pertsoniak bebai zelan etxen daben.
- (...) Gasteizen **segun, segun** zer.
- **Segun** zetako, lanak etxen banao...
- (...) eta **segun** ze erabilerarako ya gaztelerara saltaten da.
- (...) baña **segun** ze ingurutan nik usteot desberdintasuna nabaritxu ahal dala, ta nahiku ganera.
- **Segun** zer dan.

### Depende

- Hori **depende** situaziñoia bebai.
- Gure kasuan kuadrillan **depende** kanpotar bat badao ba intenta etxen da.

- **Depende** nor dan.
- *Es que **depende** nun zaozen.*
- *Ni **depende** zonia.*
- **Depende** zerena dan.
- *Es que **depende** ze topa bi´ozun.*
- **Depende** nun.

### Sin mas

- (...) *baña zuzendu eustien da bakitx holan eztala, **sin mas**.*
- (...) *erderaz idaztenbot, bueno, **sin mas**, erderaz.*
- **Sin mas**, *es que eztakitx, eztakitx.*
- (...) *anaijiak ba **sin mas** erderakazuak botate´otsatelako.*
- *Ezebez, **sin mas**.*

### Sino que

- *Ezta e osea txarto pasa de igual lotsi etxen nao, ez, **sino que** pentsa en bi´ozu ze esan bi´ozun.*
- (...) *nik bai pentsate´ot eztala eon bihar kuadrillan baten bat erderara erun bir dabena danok, **sino que** al revés ixan biko zan.*

### Por ejemplo

- *Orduntxe bai, igual e, zeuk esa´ozuna, **por ejemplo** ahalegingndu etxen zara...*
- **Por ejemplo:** "ajuetak" (zapatetako lokarriak).

### Ya

- *Gauza barrija moura da erderaz **ya** ba kostunbria da ta nahija´ot.*
- (...) **ya** *hasten naz esplikaten da...*
- *Kanpun igual, osea **ya** Bilbo, albun dola **ya** direktamente kanbija etxe´ozu txipa.*
- (...) **ya** *es que Lekitxo nose que...*
- *Gero liburuak **ya** niri personalmente gehijo gustaten jat erderaz irakurtzia.*

- (...) eta segun ze erabilerarako **ya** gaztelerara saltaten da.
- Gaztiak ulertzen eztozezen hitzak zaharrari beti ixango dira **ya** galtzen doizen euskal hitzak ba **ya** gaztiak heldu dalako momentu bat sekula entzun beztabezela ein.
- (...) baña **ya** nukleo handijawetan, hiriburuetan.
- Ordun **ya** bai , eongo zan saltua.
- Jo, baña hori **ya** beste kasu desberdin bat da.
- Bera pertsonia topate´ozu da **ya** automatiko, automatiko etxe´ozu hori.
- **Ya** saluduaz bakarrik **ya** erderara.

### Ya esta

- Ezara hasiko txistia euskeratuten, botate´ozu erderaz da **ya esta!**
- (...) guk eitxen doun lekitxarra ezta lekitxarra, ba **ya esta**, lekitxarrez eztakitx idazten, ez?

### Como

- Igual askotan gelditzen zara **como** ba hauxen.
- (...) igual e hasten zarinian euskeraz raro **como** hori **como** sentsaziño raro bat moura.

### Como muy

- Bestia ikuste´ozu **como muy**... tun, tun, tun da ezi´ozu irakurri.

### Benga

- (...) **benga** euskera ikasi bi´ot, osea, euskera ein bi´ot.

### Bua

- **Bua**, es que nik pazientzi gitxi edo aukat e...
- Aditzen kasuan da pillo bat bebai **bua**...

### Listo

- Holantxik da **ta listo**.
- (...) pues borragoma **da listo**.

- *Lentuo ein berba, motelao **da listo!***
- *Da esplikate´ozu zer dan hori hitza euskara batuan da edo holan e normal esaten dan hitz bat **da listo.***
- *Aktua etxe´ot **da listo,** osea...*
- *Entzute´oten irrati bakarra da goixitan altzaten nazenian amak ipintxen daben Bizkaia Irratia, **listo.***

### No

- *Ikusi neban erderaz da es que ezin neban, osea, **no.***

### Que va!

- *(...) **Que va!***

### Hombre

- ***Hombre,** klaro, hori bai.*
- ***Hombre** lekitxarrak berez hitz asko erderatik datoz, ez?*
- ***Hombre** tebernetan...*

### Hombre que

- *Bai, **hombre que** hartzen dabena.*

### C(l)aro

- *Hombre, **klaro,** hori bai.*
- *Igual e **karo** hitzen bat...*
- *(...) **karo,** askok automatikamente aldatzen dabe ya txipa.*
- *Bueno, horren harira e gutun bat edo zeozer bada, **karo,** neupe bai batuaz.*
- *Neu entzuten jun nazen CDiagaz kantsaten banaz ba Gazteara, baña **karo** Gaztea esan leike (...)*

### Pues

- *(...) **pues** borragoma da listo.*
- *(...) ikuste´ot que no, **pues** me rindo da listo.*

### Fijo

- (...) da esan neban horrek baaki **fijo**.

### Al reves

- Niri aurrekuan, adibidez, **al reves** pasa jaten Gasteizen.
- Niri, adibidez, aurrekuan **al reves** pasa jaten.
- (...) nik bai pentsate´ot ez tala eon bihar kuadrillan baten bat erderara erun bir dabena danok, sino que **al reves** ixan biko zan.
- Nik **al reves**, nik gehijena erderaz musikalmente.

### O

- (...) **o** igual badao, baña ez takitx, ez tot diferentzijatzen.
- Juergetako kantak **o**...

### Aparte

- ... da **aparte** nik teori bat daukat.
- **Aparte** kanpotik datorren influentzijek be asko etxen dau.
- Ez, da **aparte** nik uste´ot Lekitxo mouko herri baten ez tala euskera aldetik desberdintasunik iartzen ikastola bat ixan edo eskola bat.

### Menos

- (...) osea amen partetik danakin erderaz, **menos** lehengusuakin da gaztakin.

### Haber

- **Haber** norek kentze´otson kaskarretik hori.
- **Haber** bai, nik bai pentsate´ot ez tala eon bihar kuadrillan (...)
- **Haber**, baña hori be...
- **Haber** ba idazte´ozu (...)
- ETB1en e Goenkale ezpozu ikusten **haber** ze ikuste´ozun!

### Justo

- (...), baña gero ni **justo** ni neu pertsonalki bat naz **justo** beste multzokua.

### Porque

- Tabernetan eta holako lekuetan bai, **porque** beti saltate ´otsue erderara.

### Derrepente

- (...) ba tipo berbetan hasi bateaz pentsate ´ozuna eztakijela euskeraz da **derrepente** euskeraz kontesta.
- (...) edo igual hasten zarila erderaz berbetan da **derrepente** zozer euskeraz konturatu barik.
- (...) ta **derrepentian** e hori erderaz hasiko naz berbetan.

### Esaerak

- **Un pitoste de la leche**, orduan...
- (...) ikuste ´ot **que no, pues me rindo** da listo.
- (...) Goenkale **da punto!**
- Adibidez notizijak, telediarijua **y poco menos** euskeraz.
- Lekitxo eztait nik, ikusten dabe **puntero moura**.
- (...) da ikuste ´ozu ba **que le da igual**.
- Bada erderaz, osea, **a muerte** doina ba bale...
- Behin ein neban euskera batuaz eskolan da lotsatu ein nintzan, osea, **asi de claro!**
- Nahaste bat dauke hor, ba **de todo, de todo, de todo**, bai...
- Normalian topa bir baozu e... **yo que se!** Ba...
- **Eso es!** bueno, baña (...)
- (...) **Eso!** Hori, hori, hori, hori, hori, horixen, horixen!

### Biraoak eta irainak

- (...) da berbak eta, **ostra!**
- Eztozu ulertzen **ostiripez!**
- Erasmusen eon nintzarian bai ze ezben ulertzen **pitoripez!**

- (...) da **ostra**, baaki euskeraz.

### Jo(d)(e)(r)

- (...) eztauko zerikusirik, baña **jo** nik neuk etxian erderaz etxekeran ba solturia aukat.
- Ez, baña **joe** programak eta...
- **Jo**, esa´ozuna Carmenena bebai...
- **Joe** ba zaharren artian hitzak e euren lekitxar lekitxarrak botaten dabez.
- **Jo** es que da galdera bat sekula eztozuna planteaa, ez?
- **Jo** nik on pentsate´ot bardin dala.
- **Jode**, hori nire kasu ezta behintzat.
- **Joe** ba intentate´ot, baña eziñezkua ixaten da askotan.
- **Jo**, baña hori ya beste kasu desberdin bat da.
- **Joe**, baña ez.
- **Joe**, ba on eztakitx baña...

Hiztun batzuk beste batzuk baino gehiago erabiltzen badituzte ere, orokorrean guztiek tartekatzen dituzte gaztelera-ko forma horiek euren diskurtsoetan. Ohikoak dira horrelako interferentziak aztertutako Lekeitioko gazteen hizketaldietan, eta hain sartuta dituzte euren berbaldietan gehienetan konturatu ere ez direla egiten gaztelaniazkoak direna.

Horiez gain, beste era bateko alternantzia ere aurkitu dugu, nahiz eta ez dagoen gazte-hizkerarekin zuzenean lotuta. Gaztelaniaz izandako elkarrizketak aipatzen dituztenean, azalpena beti euskaraz ematen dute, aipua, aldiz, gaztelaniaz. Horren adibide dira, esate baterako:

- *Zoiz e beheko Eroskira, esate´otsazu eztaik nik zer da e “**dos cincuenta**”, osea, bale, esate´otsazu ”eskerrik asko, agur”, baña...*
- *Da hasikeran e atara eustan da gero beste zozer eskatu neutsan ero da: “**perdona, me puedes decir en castellano**” da “**ai, si, si, perdona**”.*

Ez hori bakarrik, gainera, esaten ari direnaren azalpen zehatzagoa emateko honako adibideak ere aurkitu dugu:

- *Hortxen dao diferentzija, “**de diferencia**”, da ordun...*
- *“**Si, por que**” moura, baña beste hiru hitz.*

Lexikoari erreparatuz gero, aipagarriak diren hitz ugari aurkitu ditugu; batzuk herriko ahozko hizkerako erabilera arruntekoak, beste batzuk, berriz, gazte-hizkerari lotutakoak. Lehenengo sail horretakoak dira:

- *Ez erderara jo de **konbertsaziño** dana erderaz.*
- *Euskeratuta daona es que ezi´ot **aguanta**, ezi´ot.*
- *Euskeraz daki **perfekto** da erderaz **saltaten** dau.*
- *(...) ondo **pareziduten** jat e, baña...*
- *... osea **aprobetxa** auntxen daukazula euskaldun pare bat.*
- *Nik ikusi´ot **mejora** dabela.*
- *Super **kuriosu** da geure artin erderaz berbetan.*
- *Gernikarrak ixateko erderara super arin **saltaten** dabela, **raru** da, bai, da azkanin **kostunbria**, horrenbeste erderaz ba zeu **amoldaten** zara, eztozu nahi baña ya...*
- *Super **dialekto** politxa aukaula, **espezial**, osea, **espezial** moura etxen gaitxu.*
- *Adibidez **notizijak**, **telediarjua** y poco menos euskeraz.*
- *Es que **inebitablia** etxen jat.*
- *(...) lantzin behin e **Segunda Bko partido** bat.*
- *Holako hitzakin bai, baña bestian **jeneralian** ez.*
- *Nire **tiok** beti esaten dau: aitxu´ozu, aitxu´ozu?*
- *Nik neuk aditzak eztoraz ondo pillaten, baña Lekitxon pillo bat **diferente** dao.*
- *Entzun baozu erderaz **telebisiñoian** ba erderaz kontate´ozu.*
- *Es que euskeraz **serijak**...*
- ***Esplikateotzazu** euskara batuan hori hitza zer dan da listo.*
- ***Lentua** ein berba, motelao da listo.*



- Hitz **konkreto** batzuk.
- Nire kasuan ez ze **esfortzu** handija etxe´ot euskera garbija mantentzen.
- Gaztiak **adoleszentzijagaz** batera, hormonon igoeria, erderara saltua.

Bigarren multzokoak, hau da, gazte-hizkerari hertsiki lotutakoak honako hauek dira:

- Nik neuk aditzak eztoraz ondo **pillaten**.
- Igual **motibaten** da, hasten da **paridak soltaten** da igual ba ondo pareziduten jat e, baña...
- Beste **rollo** bateko musikia da.

### Tipo

- **Tipo** erdera baakitx guayjo naz, ezta?
- Hori askotan ein dot nik, ba **tipo** berbetan hasi bateaz pentsate´ozuna eztakijela da derrepente (...)

### Guay

- Super **guay** dao, baña guk eztou erabiltxen.
- Tipo erdera baakitx **guayjo** naz, ezta?

### Flipatu

- ... da gixona haunan, **flipaten**.

### Tio

- Nik berba etxen e eztot pentsaten **tio**.

Gaztelaniatik barik ingelesetik hartutako esaera bat ere aurkitu dugu:

- Guk **fifty-fifty**.

Euskarazko egituretan ere antzeman ditugu interferentziak, horren erakusgarri dira:

- **Kanbija etxe´ozu txipa.**
- *Askotan baukazu kuadrillan baten bat beti erderaz etxen dabena edo ija beti, e **hori daukazu txipa aldatuta.***
- *Horijen, **txipa kanbijata.***
- *Baña jente askok bai dau **kanbijaten txipa** erderara.*
- *(...) karo, askok automatikamente **aldatzen dabe ya txipa.***
- **Haber norek kentze´otson kaskarretik hori!**
- **Asko jota igual pare bat hitz kontura baator** edo, *baña nik neuk normalian euskeraz.*
- *... osea aprobetxa auntxen daukazula euskaldun **pare bat.***
- *Eske gure kuadrillin kasuan hasten zara zozer erderaz esaten da bueno... **kutxilluak daukazuz lepotik!** Hasten da bat zuzentzen, txarto ein dozula berba, da bueno... **daukazu hille beterako txistia kuadrillan!***
- *Kontrakua be pasa leike: txistia euskeraz jakin da erderaz eztozu kontako ze dana galtzen dau, **ez?***
- *Lekitxarrak, bermiotarrak eta ondarrutarrak dizela gitxien ulertzen jakenak, **ez?***
- *Baña hori etxe´ozu, **ez?***
- *Igual saltuk be ahal dira eon, **ez?***
- *Gañera euskeria baño txarrao etxen dabe eta **erdera patetiko bat ahal da bihurtu,** baño erderaz.*
- *Es que euskeraz serijiak... **esango nazu zeintzuk daozen serijiak...***
- *(...), baño **batetik bestera mundu bat dao!***

Gaztelaniazko **–mente** atzizkia modu sistematikoan erabiltzen dute:

- *... baño eztoila **directamente** euskara batuara, eztakitx esplikaten banaz.*

- *Baña nik uste ´ot **inconscientemente** etxen doula.*
- *Gero liburuak niri **personalmente** gehijo gustaten jat erderaz.*
- *Nik al reves, gehijena erderaz **musicalmente**.*

Bestalde, gazte-hizkerari egotz dakizkiokeen beste zenbait erabilera ere aurkitu ditugu. Lekeition oso hitz erabilia da **kriston** gazteen artean, baina makulu hori herriko mugetatik haratago doa, izan ere, Bizkaiko herri askotan ez ezik, Gipuzkoa osoan zehar ere entzun baitaiteke.

- *Hitz asko galdu dira bebai lekitxarrak, osea, gure amumak eta **kriston** hitzak erabiltxe ´bezen da on e...*
- *(...) da es que nik ezin ´jot, da **kriston** bronkak botate ´otsaraz.*
- *(...) harrikazo bat erderaz, **kriston** letxik emote ´otse lexikuari erderaz da medikuak euskeraz erantzun da morroia **kriston** tantiaz hor.*
- *Gero ahal dozu ein **kriston** aditz holakua bota, baña bueno...*
- *Hor **kriston** hori dao.*
- *Nik neuk eztot entzuten Gaztea ze **kriston** txapia emoten dabe.*

Hurrengo esaerak ere gazte-hizkeraren ezaugarritzat har genitzake:

- ***Enterra engo ´aitxu!** (´dejar mal´)*
- *(...) **da morroia kriston tantiaz!***
- *(...) **kriston txapia emoten dabe.***
- *(...) **lotsi etxen nao** (´hacer el ridículo´).*

Euskara batuko –kada atzizkiaren parekoa da lekeitiar gazteek euren mintzairan darabilten –kazo atzizkia:

- *(...), baña ahoz normalian **erderakazuak**.*
- *“Kutxillua” **erderakazo** bat mouan.*
- *(...) botate ´otsu **harrikazo** bat erderaz (...)*

Behin baino gehiagotan erakusleak baliatzen dituzte makulu lez azalpenak emateko, baita dagozkien deklinabide markak erantsita ere; honatx:

- *Bai segun nungu zarin da nor zarin da **horretxek** etxe´tsu.*
- *Da morroia kriston tantiaz **hor**.*
- *Da gixona **haunan**, flipaten.*
- *Gero ahal dozu ein kriston aditz **holakua** bota.*
- *(...) o sea, **horixe**, Durangoku da.*
- *Igual askotan gelditzen zara como ba **hauxen**.*
- *Da gero beti erute´otsu beren **horra**.*
- ***Hor** kriston **hori** dao.*
- *(...) ta derrepentian e **hori** erderaz hasiko naz berbetan.*
- *Neure **horren** kontra doia.*
- *Nik danetarik idazte´ot, osea, **holantxik**.*
- *Baña **hori** etxe´ozu, ez?*
- *Informaziño **horra** banoia bai.*
- *Orduan e, bazkaltzen naon orduan ixaten dira ETB2ko **horrek**.*

Herriko gazteen artean bada oso esanguratsua den beste makulu bat ere: **mouan** edo **moura** sarritan erabiltzen dute:

- *Beste kutsu sozial bat be bauko, bixi guztijan emon jako erderiari beste maila bat **moura**, edo beste garrantzi bat.*
- *(...) beste maila bat erakutsi nahijan **moura**.*
- *“Si, porque” **moura**, baña beste hiru hitz.*
- *Como sentsaziño raro bat **moura**.*
- *(...) espezial **moura** etxen gaitxu.*
- *(...), baña es que euskera batua nik barrijo **moura** ikuste´ot, osea, gauza barrija **moura**.*

Euskara batuaren eragina ere nabari da hiztun hauen hizketaldian:

**Aldatu** (‘kanbija’); **antolatu** (‘prepara’); **berriro** (‘barriro’, ‘osterabe’, ‘atzera’); **garrantzi** (‘inportantzi’); **haur** (‘ume’); **heldu** (‘aila(ga)’); **hitz**

(`berba´); **idatzi** (`eskribidu´); **ikasi** (`estudija´); **irakurri** (`leidu´); **jarraitu** (`segidu´); **nahix da eurak ez ein** (`-arren´); **telebista** (`telebisiño´); **ulertu** (`entendidu´).

Lexikoan ez ezik, nominalizazioa egiterakoan ere euskara batuaren eragina geroz eta nabariagoa da. Hau da, adinekoek eta helduek *-ten* erabiltzen dute aditza nominalizatzeko, gazteek, aldiz, *-tzen* atzikizkia darabilte. Hori erakusten digute hurrengo adibideek:

**Ahalegintzen** (`ahaleginduten´); **aitzen** (`aitxuten´); **antolatzen** (`preparaten´ izango litzateke jatorrizko forma, baina aurreko puntuan azaldu dugu gazteek `antolatu´ esaten dutela, beraz, `antolatuten´ espero zitekeen); **geratzen/gelditzen** (`geratuten´/`gelditxuten´); **iaritzen** (`iarten´, `notaten´); **irakurtzen** (`leiduten´ < `irakurten´); **jarraitzen** (`segiduten´ < `jarraitxuten´); **mantentzen** (`manteniduten´); **ulertzen** (`entendiduten´ < `ulertuten´), e.a.

Gaztelaniaren eta euskara batuaren eragina zein lexiko kontuak alde batera utzita, herriko euskalkian bestelako aldaketak ere jazo dira. Lekeitioko berbeta estandarretik kanpoko ezaugarri ugari aurkitu ditugu laginean, gazteek inguruko herrietako (Amoroto, Gizaburuaga, Aulestia, Ondarroa, e.a.) hizkeren eraginez berenganatuak. Aldaketak deigarriak dira, izan ere, gazte gehienek egiten dituzte; horren arrazoiak asko izan litezke: unibertsitateko lagunen eragina, parrandan herritik kanpora joatearen eragina, kasu batzuetan gurasoen eragina e.a.

Hona hemen zenbait adibide:

Hasteko, herriko hizkera estandarrean, hiatoetan aldaketa batzuk egin ohi dira. Arau oso emankorra da, euskaratik sortzen diren edota erdaratik sartzen diren hitz eta egitura berrietan ere gauzatzen baitira aldaketa horiek:

*-e + a, e, o/ > ia: tristia, anbientia, jentia ...*

*-o + a, e, o/ > ua: itsasua, bertokua ...*

*-u + a, e, o/ ua: flipaua, portua ...*

Gazteen artean, berriz, azken bokala galtzeko joera gero eta handiagoa da, arestian aipatu herrietan gertatzen den legez. Laginean aurkitu diren adibide batzuk:

- **Kanpun** *igual, osea ya Bilbo, **albun** dola (...)*
- *Igual **saltuk** be ahal dira eon, ez?*
- (...) *menos **lehengusukin** da **gaztikin**.*
- *Ni kuadrilliaz kanpora **noinian** nota etxen da.*
- *Eske gure **kuadrillin** kasuan (...)*
- *Eske gero ganera **betiku** da (...)*
- **Lantzin** *behin e Segunda Bko partido bat.*
- *Hori super **kuriosu** da bebai.*
- **Zoiz** *beheko Eroskira (...)*
- (...) **Durangoku** *da (...)*
- (...), *es que **maixuk** esa ´eustan: (...)*
- (...) *igual e **lotsi** etxen nao.*
- (...), *baña ez **doila** direktamente euskara batura, (...)*
- *Eztakitx bada ya osea **denpori daroitelako**.*
- (...) *segun **nungu zarin**, nor **zarin** (...)*
- (...) *super **kuriosu** da geure **artin** erderaz berbetan (...)*
- (...) *da **azkanin** kostunbria.*

## 6. ONDORIOAK

### 6.1. Lekeitio

Lekeitio euskararen arnaguneetako bat da, eta beste herri batzuekin alderatuta euskararen egoera hobea bada ere, azken datu soziolinguistikoen arabera, euskararen erabilerak behera egin du. Herriko gazteen esanetan ere bai euskararen kalitateak, bai kantitateak beherakada izan du.

Lekeitioko gazte-hizkeraren bereizgarri nagusienetako bat erdararen presentzia da. Gazte bermeotarren diskurtsoari “gazte” kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira; garbi azaltzen da makulu, formula edo lexikoan, batez ere. Azterketa honetatik ateratako datuek erakusten dutenez, erdal hizkuntza erabiltzearen arrazoiak askotarikoak dira:

- Euren hizketaldietan gazteleraren interferentzia maila zenbatekoa den galdetuta, ia denek esan dute gehienetan euskaraz hitz egiten dutela. Gaztelania inguruan dago, horixe da errealitatea, eta sahiestezina da. Dena dela, azaldu dute herriko erdal jatorriko hitzak baino ez dituztela erabiltzen, euskalkian errotuta dauden erdal hitzak, alegia. Baina azterketa-xehatua egin ondoren, gazteek uste dutena baino gaztelera gehiago tartekatzen dute euren eguneroko diskurtsoan, eta badirudi ez dutela horren kontzientziarik.
- Herrira kanpoko jende asko etortzeak –udan batez ere- eragin nabarmena duela iruditzen zaie. Sarritan horiek geure errealitatera –errealitate euskaldunera- moldatu beharrean, euskaldunak dira erdal errealitatera moldatu behar direnak edo moldatzen direnak. Hala ere, euren buruari egotzi diote gaztelerara pasatzearen errua.

Gazte guztiek euskalduntzat daukate euren burua, eta iritzi batez onartu dute euskara sustatzearen eta bultzatzearen alde daudela. Gainera, batzuk beste batzuk baino gehiago, baina esan daiteke euren giro euskaldunari eusteko ahalegina egiten dutela, batez ere etxean euskara hutsean bizi direnak.

Kultura-kontsumoari dagokionez, euskarak ez dauka nagusitasunik; gazte lekeitiarrek, oro har, gaztelaniaz ikusten dute telebista, irakurtzen dute e.a. Hala, hori gaztelaniara jotzeko arrazoietakoa bat izan liteke. Izan ere, euren kultur erreferentziak erdal jatorrikoak badira, errazagoa da horien inguruan berba egiteko gaztelania lehenestea.

Gazteen herriko euskararen erabilerari dagokionez, zaharrek gazteek baino gehiago eta hobeto egiten dutela uste dute. Lekeitioko hitz asko galtzen ari dira gazteek ez baitituzte erabiltzen, eta sarritan gertatu izan zaie adineko norbaitek berba bat esan eta zer esan nahi duen ez jakitea. Hori ekiditeko zerbait egin beharra dagoela esan du batek baino gehiagok, jakin-mina ba omen dago, baina ez dirudi jakin-min hori asetzeko ezer egiten dutenik – salbuespenak salbuespen, noski-. Erdararen eragina bazter utzita, Lekeitioko gazteen hizkera eredu batuago baterantz doa, baina eurak ez dira kontziente, izan ere, euskara batuak ez duela eraginik euren berbaldian adierazi dute guztiek. Azterketa-xehatuak, berriz, kontrakoa erakutsi du.

Esanak esan, Lekeition euskararen aldeko kontzientzia egon badago; halere, berandu baino lehen kontzientzia hori gehiago berpizteko premia dago. Hurrengo datu soziolinguistikoek emaitza hobeak izan ditzaten, eta batez ere, Lekeitiok herri euskalduna eta arnasmune izaten jarraitu dezan Lekeitioko Euskara Batzordea lanean ari da euskara biziberritzeko eta zaintzeko ahaleginetan. Helburu hori lortzeko baina, guztion ekarria beharrezkoa da. Gainera, gazte guztiak euskaldun sentitzen badira eta euskara sustatzearen alde badaude, kontzientzia piztu behar zaie eta euskara bazter uzteak ekar ditzakeen ondorio larriak ikusarazi.



## 6.2. Bi herrien artekoak

Bermeoko eta Lekeitioko gazteen iritziak eta berbetak aztertu ondoren, Bizkaiko kostaldeko herri bi hauen artean berdintasunak eta desberdintasunak aurkitu ditugu:

- Gaztelaniaren interferentzia maila. Herri bietan daude gaztelaniatik hartutako hitzak eta esaerak, baina, Bermeon Lekeition baino erdarara jotzeko joera handiagoa dago, laginean antzeman den legez. Lexiko mailan, modu antzekoan sumatzen da gaztelaniaren eragina, esaldi mailan, aldiz, Bermeon gehiago erabiltzen da.
- Bai bermeotarrek bai lekeitiarrek euskalkia maite dute, eta euskara batua – diskurtso osoan edo gehienez zehar – apenas erabiltzen dute. Eredu batua artifiziala eta faltsua iruditzen zaie; beraien esanetan, naturalagoa da gaztelaniaz hitz egitea, euskara batuaz berba egitea baino.
- Euskara batuaren eraginak gero eta presentzia handiagoa dauka bai Bermeoko, bai Lekeitioko gazteen artean, baina eurak ez dira horretaz jabetu. Euskalkian hitz egiten dutenez, uste dute ez daudela euskara batuarekin kutsatuta, baina oker dabilta.
- Euskararen erabileran eragiten duten faktoreei erreparatuta, adina eta familia dira herri bietan eragile nagusienak. Batetik, bai Bermeon bai Lekeition, adinean zenbat eta gorago, euskara gehiago eta zainduago egiten dute; gazteek, aldiz, gero eta gutxiago eta kutsatuago. Bestetik, nabarmena da, herri bietan, familia erdalduna eta familia euskalduna daukatenean arteko aldea, euskararen kalitateari eta kantitateari dagokionez. Dena den, Lekeitioren kasuan eragile biek antzeko pisua daukate, baina, Bermeoren kasuan, familiaren jatorriak eragin handiagoa dauka. Era berean, Lekeition ikastetxeen arteko aldea sumatzen den heinean, Bermeon faktore horrek ez du eragin berezirik.
- Gazte bermeotar zein lekeitiar gehienek ez dute hartzen sexua euskararengan eragiten duen faktoretzat.
- Kultura-kontsumoari dagokionez, oro har, joera handiagoa dago telebista, musika, prentsa/liburuak erdaraz ikusteko/entzuteko/irakurtzeko, bai Bermeon bai Lekeition.

- Bermeon zein Lekeition, euskalduntasuna eta abertzaletasuna oso errotuta daude. Hala, herri bietako gazte guztiak daude euskara sustatzearen alde, nahiz eta guztiek ez duten berdin praktikan jartzen.

## 7. ERANSKINAK

### 1. Eranskina: hiztunen fitxak

#### 1. EZTABAIDA-TALDEA:

Izen-abizenak: N.G.G.

Adina: 22

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: Lekeitio

Aitaren jaioterria: Lekeitio

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama		X			
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan	X				

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: E.J.O.

Adina: 24

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: Lekeitio

Aitaren jaioterria: Ondarroa

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama		X			
Aita				X	
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean				X	
Bizimoduan			X		

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola

X				
---	--	--	--	--

Izen-abizenak: A. S.M.

Adina: 21

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: La Habana (Kuba)

Aitaren jaioterria: Lekeitio

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama			X		
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean			X		
Bizimoduan	X				

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: S.Z.J.

Adina: 21

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: Lekeitio

Aitaren jaioterria: Lekeitio

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan		X			

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

## 2. EZTABAIDA-TALDEA:

Izen-abizenak: A.A.A.

Adina: 24

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: Mendexa

Aitaren jaioterria: Lekeitio

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan	X				

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: B.G.

Adina: 23

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: Lekeitio

Aitaren jaioterria: Lekeitio

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan	X				

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: M.L.A.

Adina: 24

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: Montevideo (Uruguay)

Aitaren jaioterria: Gernika

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama				X	
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean				X	
Bizimoduan	X				

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: E.S.F.

Adina: 21

Jaioterria: Lekeitio

Amaren jaioterria: Lekeitio

Aitaren jaioterria: Florentzia (Italia)

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita					X
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean			X		
Bizimoduan		X			

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: X.V.B.

Adina: 24

Jaioterria: Bilbo (18 urte daramatza Lekeition bizitzen)

Amaren jaioterria: Lekeitio

Aitaren jaioterria: Bilbo

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama		X			
Aita					X
Zuk		X			
HITZ EGIN	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean				X	
Bizimoduan		X			

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

## 2. Eranskina: galdetegia

Bai Bermeon, bai Lekeition galdera berberak egin zaizkie eztabaida-talde guztiei; hau da, herri bietan galdetegi berbera erabili dugu. Izan ere, bata bestearekin alderatzeko ezinbestekoa da partaide guztiek itaun berdinak erantzutea. Beraz, galdetegiaren eranskin biak atxiki beharrean, bakarra jarriko dugu herriaren izena agertzen den tokian Bermeo/Lekeitio izendatuta.

### 1. *Bermeoko/Lekeitioko euskara*

- *Beste herri batzuekin alderatuta, zer iruditzen zaizue Bermeoko/Lekeitioko euskara? Kalitate aldetik? Kantitate aldetik?*
- *Eta Bermeoko/Lekeitioko gazteen euskara?*

### 2. *Euskara Bermeon/Lekeition*

- *Bermeon/Lekeition denek berdin hitz egiten dutela uste duzue?*
- *Zaharren, helduen eta zuen artean zer desberdintasun ikusten duzue? Gertatzen zaizue zaharrek hitz bat esan eta zuek ez ulertzea? Eta alderantziz?*
- *Kantitatean edo kalitatean ba al da desberdintasunik sexuaren, adinaren edo eskolaren arabera? (Horrelako galdera generiko eta orokorra botako nuke eta beraiek seinalatu dezatela zeintzuk diren beraien ustez aldagairik garrantzitsuenak).*
- *Zer iruditzen zaizue, erdarak zuen hizkeran eragina daukala? Eta euskara batuak?*
  - *Ez badute askorik zehazten: Eta nolakoa da erdararen eragina? Hitz solteak sartzea, esaldi osoak txertatzea, bi hizkuntzak nahastea....?*
- *Gaztelaniara jotzeko arrazoiak zeintzuk izaten dira*

### 3. *Euskara etxean*

- *Etxean nola egiten duzue?*
- *Etxean ezer zuzentzen dizuete?*



- *Ze desberdintasun dago etxean erdaraz eta etxean euskaraz egiten duten gazteen erabilera-proportzioen eta hizkeren artean?*

#### **4. Euskara lagunartean**

- *Zuen artean (lagunartean) nola egiten duzue?*
- *Zuen adineko neska euskaldunek eta mutil euskaldunek berdin egiten dute euskaraz? Edo aldea dago?*
- *Sare sozialetan nola idazten duzue?*
  - *Erantzunen arabera: Batuan idazten badakizue, zergatik ez batuan idatzi?*
- *Bermeokoak/Lekeitiokoak ez diren lagunei ere bermeotarrez idazten diezue?*
- *Beste herri batekoekin hitz egitean zer sentazio izaten duzue? Ulertzen zaituztete? Eta zuek haiek?*
- *Beste herriekin alderatuta, zer iruditzen zaizu Bermeoko/Lekeitioko gazteen euskara kalitate nahiz kantitate aldetik?*
- *Nola erabiltzen dituzu batua eta euskalkia lanean, hitz egitean, idaztean, Whasappetan, sare sozialetan....? Zergatik?*
- *Euskalkiak erabiltzeko arrazoiak zeintzuk izaten dira?*
- *Gaztelaniaz hitz egiten duzu batere? Harremanak egiteko nola sentitzen zara erosoan, euskaraz ala gaztelaniaz? Erdaldun zein euskaldunekin berdin egiten dituzu harremanak?*

#### **5. Kultura-kontsumoa**

- *Musika zer hizkuntzatan entzuten duzu? Irratia?*
- *Telebista zer hizkuntzatan ikusten duzu?*
- *Zer hizkuntzatan irakurtzen duzu (liburuak, egunkariak, aldizkariak ...)?*

## 8. BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, K. Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea. HIZNET Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Amonarriz, K. (2008): Gazte Hizkerak –Hizkera Gazteak. Bat, 68.167-183.
- Aranguren Zubimendi, Maddi (2012). “Azpeitiako gazteak eta euskara”. HIZNET 11-12ko sakontze egitasmoa.
- José Ignacio Hualde, Gorka Elordieta eta Arantzazu Elordieta, 1994. *The Basque Dialect of Lekeitio*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Muñoa, I. Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? Bat, 42. 53-63.
- Zuazo, K. (2000). Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar. Donostia.

- <http://eu.eustat.es/>
- [www.bizkaiera.net](http://www.bizkaiera.net)